

# HIP HOPa

## eta

# RAPa

**Ikasgaia:**

Euskara eta bere didaktika

**Irakaslea:**

Eider Rodriguez

**Ikasleak:**

Oihana Etxebarrieta

Eider Lopez de Arregi

Ane Gisasola

Igone Mendez

**Data:**

2010/02/25

## AURKIBIDEA

1. SARRERA Hip-hopa eta rapa.....	2
2. ZENBAIT GALDERA.....	3
1. Nolako hizkera erabiltzen dute euskal raperoek?.....	3
2. Gazte hizkera al da erabiltzen dutena?.....	5
3. Zergatik daude talde gutxi?.....	5
4. Horrenbeste talde egonda, zergatik ez dira ezagutzen?.....	7
3. BERTSO HOP.....	9
4. ONDORIOAK.....	11
5. ERANSKINAK: Elkarrizketa Aritz Sound System.....	12
6. BIBLIOGRAFIA.....	14

## 1. SARRERA: HIP-HOPA ETA RAPA

Euskal Herrian geroz eta gehiago dira Hip-Hop kulturagatik erakarrira sentitzen diren gazteak. Hip-Hopa 70. hamarkadan AEBetako auzo txiroetan sortutako mugimendua da, espresibidea. Ideiak eta sentimenduak adierazteko modua da Hip-Hopa eta horretarako, ideiak eta sentimendu horiek adierazteko, baliabide desberdinak erabiltzen ditu. Rap musikak, doinu eta letren bitartez, ahozko espresioa adierazten du, kantatzeko eta musika egiteko modu berezia (scratcharen teknikak lagunduta). Break dantzak gorputzaren espresioa ahalbideratzen du. Gorputza, lurrarekin harreman estuan eta musikaren laguntzaz, mugimendu ikusgarrien bidez, espresio tresna bilakatzen da. Graffitiarekin, ideiak eta sentimenduak, irudi bihurtzen dira. Espriaren teknikaz baliatuz panel edo paretak orri zuriaren papera jokatzeko dute. ([www.ixah.net](http://www.ixah.net))

Hip-Hop mugimendua AEBtako auzo txiroetan jaio zen eta auzo txiro horietako egoera larria islatzen du (miseria, drogak, bortizkeria, e.a.) baino horrek ez du esan nahi giro hori kantuen bidez azaltzen duten rap abeslari guztiak horrelakoak direnik. Ezta gutxiago ere. Askorentzat Hip-Hopa izan da (eta da) sentitzen dutena espresatzeko modu bakarra; bizi duten egoera gordina salatu eta egoera horri irtenbidea bilatzeko saiakera. Aldaketarako eta iraultzarako tresna.

Hip-hop mugimendu hau geroz eta indartsuago dago Euskal Herrian, adibidez, urtero antolatzen den Break On Stage aipatu behar dugu. Elorrión hasi eta Bilboko Euskalduna jauregiraino mugitu den jaialdi honetan, Euskal Herriko eta nazioarteko breakerrak, rapperak, grafiteroak... biltzen dira, eta geroz eta jende gehiago hurbiltzen da haien lana ikustera.

Hip-hop mugimendua orokorrean hartu baino, gure lanean rapera mugatu gara, eta kasu honetan euskaraz egindako rapera. Musika estilo honetan abesten dutenei MC deitzen zaie, eta musika jartzen dutenei, Disko-jartzaile edo DJ. Oilarren arteko borrokak antolatzen hasi dira azken denboraldi honetan Euskal Herrian. Rapperren arteko borrokak egiten dituzte eta esaldiak inprobisatuz elkarri mokoka ibiltzen dira musikaren laguntzaz. Bertso-hoparekin adibidez honelako jaialdiak antolatzen dituzte.

Euskal Herrian Selektah Kolektiboa izan zen lehen rap talderik entzutetsuena. Hala ere taldeak sortzeko saiakera desberdinak egon ziren hau baino lehen, baina lehen disko arrakastatsuak talde honek argitaratu zituen. Aurreneko saiakerak egin zirenetik ia hamar urte joan dira eta geroz eta fruitu gehiago ematen ari da euskarazko rapa.

Euskal Herriko gazteria nahiko itxia egon da kanpotik zetozen estiloetara, zaila egiten ari zaio rapari leku bat egitea (nazioartean ez bezala). Euskal Herrian rapa entzuten duten gazte askok erdaraz entzuten dute. "Logikoa da, medioetatik hori da iristen zaiguna. Baina musika egiterako garaian ere hori hartzen dute eredu. Eredu okerra askoren iritziz, batetik, erdaraz delako; bestetik, erabiltzen dituzten edukiak, gaiak, estiloa... raparen adarrik pobreena dela iruditzen zaidalako. Eta estilo horretan sartuko lirake, indarkeria, dirua, drogak, auto garestia etab. Euskal raperoak eredu horren aurka agertzen dira gehienbat. Rapa aldarrikatzeko balio duen tresna bezala ikusten dute." (Aritz Sound System, Argia 2009)

## 2. ZENBAIT GALDERA

Jasotako informaziotik abiatuta, hainbat zalantza sortu zitzaizkigun euskal raparen inguruan. Lana egituratzeko garaian, gure zalantzen garapenak, lan honen garapena ekartzen duela ikusita honela aurkeztea erabaki dugu. Oinarrizkoenetik hasi eta zehatzeraino, euskal raparen inguruan murgilduko gara.

- Nolako hizkera erabiltzen dute euskal raperoek?

Hau aztertzeko modurik egokiena, ezagunenak diren bi talderen abestiak hartu eta aztertzea izan daitekeela pentsatu dugu. Lehena, Selektah Kolektiboaren abesti bat da. Honetan, parrandaz eta sexuaz mintzatzen da.

**Festa... zu ongi presta** (Selektah Kolektiboa, Esperientzien etorbidetik Esan Ozenki)

Hau da festa besta ez bota errieta  
zure ondoan botatzen badut siesta  
ez da besta gozatzeko modu bakarra  
itsaso bakoitzak isurtzen du bere aparra  
bat bedera bere modura  
ni zure ondora  
zure bularren beroa sentitzen dudanean  
bakarrik neska baten ipurdian  
desbiderdesbider dezaket nere tankea, xakea!  
Azukrea du likoreak  
eta humoreak ematen dizkizu  
azukrea zara zu!  
Dastatzen dudanean gauean izerdi  
edaten duzunean sei litro t'ardi  
gaueko gatazkan non da Victor Aierdi?  
Bakea lortu nahiean  
zurekin ni elkarrekin gabiltza  
ba ez gal giltza  
edo karrikan aritu beharko dugu kondoilaritzan  
edozein ordutan ospatzen dut ospakizuna  
nere eskuaz kanpai jotzen dagit iragarkizuna  
gaua da iluna baina eromenak  
argitzen du bidea  
ero nagoelako irekitzen dut zure pisuko atea  
ahateak bezala biok biluzik larrutan  
uretan izan gabe luma guzti-guztiak bustita!

Hau da Hip-Hop festa  
zu ongi presta  
alkoholezko orkestra  
lizuna zuk nahi duzuna  
berriz ere zure ardurari isuna  
gozamen eromen sentimenen  
jainko ahal guztiduna

Egunez egun hitz egiten  
errimak lantzen  
lau lagun tabernaz taberna kontzertuak ematen  
Euskaditik berna festa orokorra  
gaur egun harrapatzeko mozkorra  
gaztea edo zaharra bazara  
selektahrekin etorri dantzara  
artistak eta erdi deportistak  
entrenamendua berba eta idazteko errimen  
malabaristak  
etorri gurekin dantzara  
erakutsiko dizugu ortzadarra  
gure altxor handiena barruan duguna  
laguna ez moztu eta etorri hona  
bat bi ezkerre eskubi  
jendea mugitzen dela dirudi  
festarako tresna besterik ez gara  
Hip-Hoparekin edatzeko euskara

Festa hasita dago bidean  
jendea sartzen doa atetik  
barraren gainetik  
garagardoak dantzan  
DZ daukagu musika aukeraketan  
jendea dago gustora bero dantzan  
beranduago egongo gara balantzan  
nahiago nuke balantzan neskatan  
oraingoz bakarrik zuritza dau eskutan  
erortzen bazaigu seinale ona da  
a ze nolako mozkorra, gustora  
zure lagunekin berriketan gauaren erdian  
ordu bakoitzeko giroa hobeagoa da  
asmatu nor berotu den  
tabernariak zerbitzatzen nazkatutak  
batzuk hizketan beste batzuk neskatan  
hontan ez dagona mozkorra kendu nahian  
alaia ala tristea  
baina hala ere festa jarraitza doa

Nahiz eta haien euskalkia (Nafarrera) erabili gehien bat, ikus daiteke gazteentzako oso gertukoak diren hainbat hitz erabiltzen dituela. Adibidez: Zurito, neskatan (ligatzen ari

dela esateko erabiltzen da), balantzan (mozkortuta dagoela adierazteko), kondoilaritzan (larrutan ibili)...

Honetaz gain, ia-ia abesti guztia hitz jokoetan oinarritzen dela ikus daiteke. Honek gertutasuna ematen dio haien testuari. Gazteentzako erakargarriak diren hitz jokoak dira ondorengoak:

- *Bakarrik neska baten ipurdian, desbider dezaket nere tankea, xakea!*  
Honekin, guk, bi irakurketa desberdin egin ditugu. Alde batetik, neska bati soilik sartu nahiko liokeela zakila ipurditik. Edo beste alde batetik, pertsona honen arreta nesken ipurdiaren arabera izango dela, eta gau guztia neska hauek lortzen ibiliko dela, eta haren lan guztia haiekin gaua pasatzeko egingo duela.

- *Ahateak bezala biok biluzik larrutan uretan izan gabe luma guzti-guztiak bustita!*  
Larrutan egiteak sortzen dituen izerdiak eta jarioak adierazteko erabiltzen du.

Testu honetan beraz, parrandaz eta sexuaz aritzeko, gazteei hurbilekoak sentitzen dituzten hitzak eta esamoldeak erabiltzen dituzte, eta guzti-guztiak euskaraz dira.

Beste talde baten abestia aukeratu dugu, M.A.K talde ziburutarrarena alegia. Haien bigarren lanean agertzen den abestia da ondorengoa. Ikusi ahalko den moduan kutsu politiko sakonez beteta dagoen abestia da.

### **Agla Rabia** (M.A.K. Suaren garai, errauts erreka)

Gaur gauaren itzaltzean euripean  
Itzalak karrika itxoiten dute mezutzea  
Goizeko seiak sartu dira etxean izutzea  
Entzun eta oihu luze luzea  
Beste lagun bat gehio orain espetxean  
Ta zurrumurrua de barrio en barrio , haizea  
Ortzi bapatean, biltzen gira ixilpean  
Bihotza ta errabia ditugu hauzea  
Begiradetan senti dezakezu pisua  
Herenegun heriotzaren eskadroi odoltsua  
Atzo esistitzen ez den torturaren sua  
Herensugearen umorea igotzen , oldartsua  
Deiadarra bota : Biafore !  
Lasterka kaputxak karrika herronkari  
emango hemen erronka , aurrezko kaskaren korronka,  
suzko txorria, ia aska !  
Errabia errabia sortzen da sukarran  
Erori direneri agur eta ohore!  
Errabia errabia keroseno sugarran  
Erroitzan buka baino lehen  
Biafore !

Bertan ere, taldearen euskalkia erabiltzen dute, kasu honetan nafar-lapurtera. Kasu honetan, atxiloketa bat eta ondorengo amorruek sortarazten dituen sentipenak isladatzen saiatzen da. Beraz, honekin lotuak dauden hitzak erabiltzen ditu: espetxea, errabia, tortura, kaputxak, agur eta ohore, keroseno...

Aipamen berezi egin nahi diogu Biafore hitzari. Hau, erdi-aroan, laguntza eskatzeko erabiltzen zen terminoa da. Baionan, garai horietan intseguritate handia zegoenez hiritar guztiek oihu hori entzutean laguntzera atera behar zuten.

Abesti honetan, egoera politikoa eta kritika soziala dira nagusi. Oso aldarrikatzailea den rapa sortzen da Euskal Herrian, eta abesti hau adibide garbia dugu. Espetxea, torturak... bezalako gaiekin abesti bat egin du.

- Gazte hizkera al da erabiltzen dutena?

Hasieran, iruditu zaigu, euskara nahiko estandar eta formala erabiltzen dutela orokorrean. Baina sentsazio hau, erdarakadarik erabiltzen ez duelako gertatu zaigu. Talde hauek (orokorrean euskal rapean ibiltzen diren besteetan ikusi ahal izan dugu ere) euskararekin jokatu eta bizitasuna ematen diete haien testuei. Gazte hizkera, guretzat, erabilgarria, bizia eta garaira egokitutakoa izan behar du. Nahiz eta oraindik zenbait gauza biziago esan ahalko ziren, rapean gazte hizkera hori islatuta ikus daiteke.

Euskal gazteei zuzendutako rapak, lan handia egiten du, gazteei euskaraz soilik diren testuak, erakargarria egingo zaizkien moduan zabaltzen baititu. Hau lortzeko, euskararekin jolastu egiten dute, hitz jokoekin eta baita gertu-gertukoak diren hitzekin. Batzuetan ere, hitz berri batzuk asmatu egiten dituzte (adib. Kondoilaritza). Beraz, euskal rapak, gazteei zuzendutako musika egiten duen heinean, gazte hizkera erabiltzen du.

Raperoen iritziak ikusita, guztiak bat datoz euskarak beharrezkoa duen berrikuntza ekartzen dutela raparen bidez. Esan daiteke, estilo honek euskarari bizia ematen diola eta garai berrietara moldatzeko aukera ematen diola. Horrez gain, euskal musikari freskotasuna ere ematen dio eta "topikoetatik aldentzen du". Gainera, belaunaldi berriak euskarara erakartzeko modua ere izan daiteke. M.A.K. taldeko kide den Jon Eiharbidek, Maisha MC rap abeslariak eta 121 Crew taldeko Endika rapperrak honakoa diote:

**Jon Eiharbide (M.A.K):** "Aniztasuna, indarra, berrikuntza, erritmoa, oldartze ahalmena eta hitza berriz ere lehen tokian jartzea. Gure hizkuntzan, rocka, punka, reggaea eta rapa ere entzun dezakegula adieraztea. Beti aurrera goaz eta gure ahotsa eta gure kultura erakusten diogu MTV ala ETB soilik ikusten dituen gazteriarri. Entzun dudana euskal rapak ez du lotsatzekorik ezer."

**Maisha MC:** "Behin, Wanka Wankerri (Selektah Kolektiboko kide ohia) egindako elkarrizketa batean, honakoa irakurri nion: berak Harri Aroan, Erdi Aroan eta informatikaren aroan bizirik iraun duen hizkuntza batean rapeatzen zuela. Nire ustez, rapak berritasuna ematen dio euskarari. Euskarak eta euskal kulturak erakargarritasuna behar dute bizirik irauteko."

**Endika (121 Crew):** "Rapak, berezko nortasun zehatza duen musika izan arren, egiten den lekuaren ezaugarri kulturalak jasotzeko, erabiltzeko eta birziklatzeko joera du. Orokorrean, momentu honetan mugimendu musikal honetara hurbiltzen diren entzuleak erdaldunak dira gehienetan. Are gehiago, euskaldunak direnek rap erdalduna entzuten dute batik bat. Horregatik, oso garrantzitsua da gure lana indartzea, hobetzea... Izan ere, gero eta entzule gehiago izan, gero eta jende gehiago izan euskal rapa egiten, hobe. Horrek izan behar du helburua hip-hop bezalako kultura parte hartzaile batean."

- Zergatik daude talde gutxi?

Lana egiten hasi ginenean, talde gutxi zeudela pentsatzen genuen, baina behin bilatzen hasita uste baina gehiago aurkitu ditugu. Asko daudela eta geroz eta gehiago

sortzen ari direla ikus daiteke.

Euskaraz bizitzea zailena den lekuetan atera dira euskarazko rap talderik hoberenatarikoak. 121 Crew Barakaldokoak dira, Indarrap Gasteizkoak eta MAK berriz Ziburu eta ingurukoak. Goiko puntuan aipatu bezala, euskal rapak gazte hizkera erabiltzen du. Honetarako, lan handia egin behar da, ez baita oso ohikoa gazteen arteko euskara hutsezko elkarrizketa bat. Kasu hauetan, talde hauen lanaren bidez, hainbat gai euskaraz jorrazteko aukera ematen ari dira. Euskara ondo menperatu behar dute, honekin jolastu eta nahi duten guztia euskara hutsez adierazi ahal izateko. Eta hasieran genuen ustea albo batera utzi behar izan dugu, badaudelako taldeak, eta badagoelako gazteentzako euskara. Honekin, raperoek, euskal gazteriari, sexua bezalako gaitaz hitz egiteko garaian euskara erabili daitekeela erakusten diote. Beraz, lan bikoitza daukate, alde batetik, euskarazko rapa egin, eta bestetik, jendeak sentitzen duen artifizialtasun hori egiazkoa ez dela erakustea. Zailtasun bikoitz hori hala ere menderatzen saiatzen diren talde ugari daude.

### Selektah Kolektiboa

Selektah Kolektiboa euskaraz abesten zuen lehen hip-hop taldea izan zen. Musika beltza hainbat bidetatik (jaiak, irratsaioak, fanzineak...) sustatzea helburu zuen lagun talde zabalago baten barruan sortu zen. Musika beltza, Ameriketara arraza beltzeko pertsonak sortutako musika barnebiltzen du (hip-hop, funk, soul, reggae...)...Bi disko, *Selektah Kolektiboa* (Esan Ozenki, 2000) eta *Esperientzien etorbidetik* (Esan Ozenki 2002) kaleratu ondoren, 2005ean desegin zen taldea. Selektah Kolektiboa 2000. urtean argitaratu zen, eta euskarazko lehen hip-hop diskoa izan zen. Euskal Herriko egoera politikoa, euskararen bazterketa eta hip-hop kulturaren aldarrikapena ditu hizpide taldeak disko horretako kantuetan, eta UPN alderdiari, kazetariei eta poliziari zuzentzen dizkie amorrutako hitz zorrotzak. Talde desberdinekin kolaborazio ugari egin zituen kolektiboak, hala nola, Fermin Muguruza, Manu Chao, Negu Gorriak...

### M.A.K. (Musika Armatu Komandoa)

2003. urtean sortu zen Ziburu inguruko herrietan M.A.K. (*Mikrofon Addikt Klan*) taldea. Lehen etapan lau MC (hiru mutil eta neska bat) eta DJ batek osatzen zuen taldea. Euskaraz, katalanez, frantsesez eta espainolez rapeatzen zuten. 2005. urtean lehen disko argitaratu zuten Metak diskoetxearekin: Suari Darion Kea.

Azken urte hauetan dezente aldatu da taldearen izaera eta bigarren etapa batean sartu direla ikus daiteke. Hasierako taldetik euskaraz egiten duen MC bakarra eta DJa geratzen dira soilik. Musikari berriak sartu dira taldera. Bigarren disko bat kaleratu dute, Suaren Garai Errauts Errakai. Taldearen izena zertxobait aldatu da ere. M.A.K. siglei esanahi berria eman baitiete: Musika Armatu Komando.

### Beste talde batzuk

Bi hauek dira Euskal Herri mailan eta baita nazioartean ere ezagunak egin diren taldeak. Baina hauei jarraituz, Hip-Hop munduko gazte belaunaldi indartsu batek hainbat talde osatu ditu. Horien artean, Barakaldo-Bilbo inguruko 121 Crew taldea aurki dezakegu. Hauek oso ezagunak egiten ari diren zenbait letra argitaratu dituzte, adibidez "Gora Baraka, behera Neguri" dioena. Norte Apache, Ipar Rap-eroak, Raperos de Emaus, Maisha MC, Indarrap... eta beste hainbat aipatu ahalko genituzke.

Gazte talde hauek, haien kontzertuez gain, Aritz Sound Systemekin batera Bertso-Hoparen proiektuan daude sartuak. Euskal Herriko txoko desberdinetan euskal rap eta

bertsolaritzarekin osatutako ikuskizuna eskaintzen dute. Arrakasta dezente lortzen ari den saio honen bitartez, euskarazko rapa geroz eta presenteago dago euskal gazteen artean.

Hala ere iritzi ezberdinak daude gai honen inguruan. Euskal rapa oraindik ez da oso ezaguna gazteen artean, baina pixkanaka hedatzen ari den mugimendua bilakatzen ari da.

**Jon (MAK):** "Handitzen eta indartzen ari da. Oraindik oso mugimendu gazte eta freskoa da. Euskal Herriko lurralde guztietan agertzen ari dira talde berriak eta horrela segi dezala."

**Maisha MC:** "Oso euskal rap gutxi dago. Beti esaten dut gauza berdina, baina nire ustez egia da: Ameriketako Estatu Batuetan rapa musika entzunena da. Frantzia ere hip-hop oso hedatuta dago. Munduko herri guztietan hip-hop oso arin hedatzen ari da, izurrite bat moduan. Espainia mailan ere modu izugarri batean hedatzen ari da. Egoerak horrela jarraitzen badu, Euskal Herrian ere gaztelaniaz egindako rapa nagusituko da. Euskal Herrian milaka MC daude, eta euskaraz egiten dugunok hamar bat gara, edo gutxiago."

**Endika (121 Krew):** "Egungo egoera ez da erabat pozik egotekoa, baina pixkanaka gero eta talde gehiago agertzen ari dira eta ikusleek ere rapa entzuteko gero eta joera nabarmenagoa adierazten dute. Dena den, oraindik bide luzea dugu beste musika mota batzuekin parekatzeko. Bide horretan beharrezkoa da talde berriak errepidean ikustea orain etengabe jotzen ari diren beste taldeekin batera, jendeak euskal rapa irekitzen ari denaren nozioa har dezan."

- Horrenbeste talde egonda, zergatik ez dira talde hauek ezagutzen?

Alde batetik, euskal rapa erakargarria ez dela entzun daiteke, musika estilo hori Euskal Herrian arrakastarik ez duela ere. Hau ala ere ez da egia. Euskal Herrian erdaraz egindako rap ugari kontsumitzen da, eta argi ikusi dugu euskaraz egindako rapa bizia eta hurbila dela. Beraz, zein da arazoa?

Ez da euskal rapa ezagutzen. Horretan Hip-Hop munduan murgilduta dauden guztiak bat datoz. Azaletik begiratuta, guri gertatu zaigun moduan, talde gutxi daudela pentsa daiteke, baina behin mundu honetan murgilduta asko direla ikus daiteke. Ez zaio garrantzirik ematen, eta bete ditzakeen funtzio guztiak ez dira ikusten. Bai akademiek eta baita komunikabideek ere alde batera uzten dute musika estilo hau. "Laguntza behar da. Udalen laguntza, elkarteen laguntza, jendearen laguntza, gazteen laguntza, instituzioen laguntza, Fermin Muguruzaren laguntza... Dirutza bat gastatu dut nire disko grabatu ahal izateko eta inork ez nau lagundu arlo ekonomikoan. Trebezia eta kalitatea hor daude, baina bitartekorik ez dago. Kepa Junkerari emandako diru laguntzaren %0,001arekin euskaraz egindako kalitatezko 10 CD egongo lirake kalean, laguntza apur batekin gauza izugarriak egingo lirake, baina oso bakarrik gaude. Nire beat-ak eta nire letrak egiten jarraituko dut, rapa eta euskara maite ditudalako." (Maisha MC)

Honetaz gain, raperoek beraiek egin beharreko lana handia da. Hasi dira haien artean batzen, jaialdiak elkarrekin antolatzen... eta bide horretatik jarraitu behar dutela argi dute guztiek. "Gaur falta zaiguna honakoa da: bilduma baten bidez gazteriaren gehiengoari gure lana ezagutaraztea. Izan ere, talde-saltzaileen eskuetan erortzen ez garenez, gure musika momentuko nahiko ezkutuan geratzen da. Internet sarean ibiltzen direnek badakite zer proposatzen dugun, baina besteentzat euskal rapak ez du

gauza askorik esan nahi. Norbaitek hartu beharko luke bere gain ongi ekoitzitako eta promozionatutako CD bat kaleratzeko lana. Premiazkoa da mugimenduak beste aurrerapauso bat emateko.” (Jon M.A.K)

Hala ere, egia da musika estilo hau ez dela gustukoena gazteen artean, eta azkenean benetako bultzada eman ahal izateko, entzuleei ere dagokie euskaraz egindako lan honi laguntza ematea. “Pausu asko daude emateko oraindik ere. Lehenengoa eta garrantzitsuena lanean jarraitzea da, etxean, kalean eta oholtzaren gainean. Horrez gain, azpimarratuko nuke, gure lana indartzeko, jendeak beste musikarien parean jarri behar gaituela. Egia da rapa egiteko bideak beste musika estiloekin alderatuz ezberdinak direla eta askotan estudiotik edo entsegu lokaletik baino kaletik hurbilago bizi garela, baina horrek ez du esan nahi eszenatoki baten gainera igotzen garenean begirune gutxiago jaso behar dugunik” (Endika 121 Crew).

Gorago ikusitako aipamen batean, Fermin Muguruzaren izena agertzen da, eta ez da kasualitatea. Pertsona honek, lan handia egin du hip-hop talde gazteak bultzatzen, Selektah Kolektiboa, Bad Sound System, M.A.K... guztiak pasa dira haren eskuetatik. Euskal Herrikoetz gain, mundu mailako rap talde asko Euskal Herrira ekarri ditu eta haiekin batera proiektu desberdinak sortu ditu. Azkena, “Check-point rock” izan da, besteak beste Palestinako DAM rap taldearekin egindakoa. Hala ere Negu Gorriak taldearekin lehen pausoak eman zituen. Talde honekin, rapa eta euskal rocka nahasten zituen, baita beherago aipatuko dugun Bertso-Hopa sortu ere.

### 3. BERTSO HOP

Bertsolaritzak eta rapak behin baino gehiagotan egin dute bat azken urteotan. Bertso-hop, bertsolaritza eta raparen arteko harremana da. Harreman hauek "intuitiboki" hasi ziren. Unai Muñoa bertsolariaren arabera: "Ikusten genuen bertsoak eta rapak oinarrian bazeuzkatela oso komunak ziren elementuak, eta, aldi berean, gaur egungo gizartean eta gaur egungo gazte mugimenduetan erakargarria izan zitekeela".

Bertsolaritzan egitura batzuk, arau batzuk daude, eta raparen munduak horrekin hautsi egiten du: musika da neurria eta erritmoa markatzen duena. Musikak erritmoa eta neurria markatzeak, arreta bi gunetan, testuan eta musikan, izan beharra dakar. Bertsolaritzak oso neurri zehatzak ditu, rapak ez ditu; errimak ere oso zehatzak izan behar dira, eta rapean ez du errimatu behar, belarrira ondo ematen badu, ondo errimatuta dago, eta batzuetan errimatu gabe ere utz daiteke. Errimetan dago antzekotasunik handiena, nahiz hori ere desberdin egiten den.

Bertsolaritzak rapetik "ikusgarritasuna" har dezake Maisha MCaren ustez: «Hip hop saio batean *break dance*-a egon daiteke, graffitia egon daiteke... eta hori oso ikusgarria da. Bertsolaritzan edukia oso ona izan arren, ikusgarritasuna oso txikia da. Gazteak erakartzeko ikusgarritasun ukitu hori hip-hopean aurki dezake bertsolaritzak».

Rapak bertsolaritzatik errimak ditu hartzeko (errima ugari eta oso aberatsak baititu) baina neurria ez. Maishak dioenez "Izugarria da niretzat bertsolaritzaren neurria. Niretzat ezinezkoa da eskatzea rap bat neurri jakin batean eta silaba kopuru batekin botatzea."

Aritz Sound System izan da azken urte hauetan Bertso Hopa oholtzara berriro ekartzeaz arduratu dena. Bera, Selektah Kolektiboarekin hasi zen lanean nahiz eta lehenagotik disko jartzaile ibili zen festarik festa. Selektaharekin, Euskal Herrian oraindik ezezaguna den musika beltza zabaldu eta ezagutarazi nahi zuten. "Konpromiso politiko" batetik abiatuta, musika beltza euskaraz egin daitekeela erakutsi nahi zuten. Selektah Kolektiboaren proiektua eten zenean, aurrera jarraitu zuen, jaialdi desberdinetan musika beltza jarriz. Azken urte hauetan, Euskal Herriko euskal raperoak batu, eta bertsolariekin batera Bertso Hop jaialdiak antolatu ditu. Euskal Herriko txoko desberdinetan raparen eta bertsoaren kultura erabat uztargarriak direla erakutsi dute. Honela ere, euskal rapa indartu eta bertsolaritzak duen jarriotasunaz ornitu du.

Hala ere hip-hop eta bertsoak nahastea ez da gauza berria. 1990. urtean Negu Gorriak taldeak rap bihurtutako ondorengo bertsoak har ditzakegu kontuan:

## Bertso Hop (Negu Gorriak, Esan Ozenki)

GAIA:

Peñagarikanok gaur  
egundoko parranda bota du,  
edo zu Peñagarikano bota duzu,  
eta etxera etortzean  
emaztearen ohean sartu ordez,  
Egaña, amonaren ohean sartu da.

EGAÑA:

Batetikan korrozka,  
bestetik herrena,  
oiha okupatu du  
hori da txarrena  
ez da pinta kabala  
honek dakarrena,  
kantzontzilorik gabe  
ohean barrena,  
pixkat gutxio edan  
ezazu hurrena.

PEÑAGARIKANO:

Gaur parrandan jo ta ke  
hor dabil gizona,  
lehenen pasiloa jo  
ta gero komona,  
uste nuen hau zala  
nik nere moñoña,  
laztantzen hasi naiz ta  
ez da horren ona,  
mozkorra nator eta  
barkatu amona.

EGAÑA:

Ez diot txartzat hartu  
muxuka hastea,  
naiz oraindik ez egon  
holako gaztea,  
ez da gauza ederra  
buru eskastea,  
hari tokatu behar  
holako trastea,  
martiri bihurtu du  
bere emaztea.

PEÑAGARIKANO:

Nun ibili naizen ni  
esan det lehenago  
amonaren ondoan  
ederki ez nago,  
izan ere edan det  
horrenbeste ardo,  
gutxienez bazitun  
hoitazazpi grado,  
bota egin behar det eta  
oñala nun dago?

EGAÑA:

Ohean sartu zaigu  
kolpera onduan,  
lapur gaizto ta trakets  
hoietxen moduan,  
pixa egin ezazu  
toki seguruan;  
kordea banatzeko  
hemen inguruan,  
poltsa beroarekin  
joko det buruan.

PEÑAGARIKANO:

Poltsa beroarekin  
hortxe jo nau danba!  
Ni ez naiz lotsatuko  
egia esanda,  
amonan errezoa  
holaxe izan da:  
"Requiem est domine  
irgo veneranda"  
gehio ez naiz etorriko  
amona edanda.

Negu Gorriak bertso hauek raparekin nahastuz lehen Bertso Hopa sortu zuen. Aipagarria da gainera, abestiaren izena horixe izatea: Bertso Hop.

#### 4. ONDORIOAK

- Gaur egun ez dira asko euskaraz rapa egiten duten taldeak. Hala ere geroz eta gazte gehiagok bat egiten dute estilo honekin, eta hau euskaraz egitea hautatzen dute.
- Gaur egun euskal rapa egitea hautatu duten horiek, euskara bizia eta gaztea erabiltzen dute. Zailtasunak zailtasun, euskara hutsez egindako mezu argi eta zuzenak egiten dituzte. Gainera, euskarari bultzada garrantzitsua eman ahal dion generoa dela uste dugu. Gazteek eginda, gazteentzako denez, egunerokotasunean erabiltzen diren gaiak euskara hutsez hitz egin ahal izatea ahalbideratuko baitu. Horretarako hitz jokoak, eta hitz berriak erabiltzen dituzte. Euskararekin jolasteko tresna da rapa.
- Alderdi guztien (Instituzio, gazte, komunikabide, rapero...) inplikazioa beharrezkoa da genero hau euskaraz egiten jarraitu dadin. Honela lortuko baita euskara aberastu eta gazte hizkera ez-artifiziala sortzea.
- Bertso Hopa euskal kultura tradizionala eta modernoa batzen dituen estilo berria da. Honi esker, hain desberdinak ez diren bi estiloak batu eta rapa ezagutaraztea lortzen ari da. Gazteek, jarotasun eta bizkortasun handia duen generoa geroz eta gehiago ikustera ohituko dituen emankizuna da hau.

## ELKARRIZKETA: ARITZ USANDIZAGA (Aritz Sound System)

1. Gaur egun Euskal Herrian nolako tokia du rapak? Garrantzia al du gazteen artean?

Rapak eta Hip-Hop mugimenduak oro har izugarritzko hedapena izan du mundu osoan eta gazteen artean, bereziki. Euskal Herrian ere, beste lekuetan baino beranduago bada ere, zabaltzen eta indartzen ari da. Estatu espainiar eta frantsesean duen indarrak bultzatuta eremu erdaldunetan zabaldu da lehenik eta, pixkanaka bada ere, eremu euskaldunetara ere hedatzen ari da.

2. Euskara ez al da erakargarria rapa egiteko garaian? Errazagoa da gaztelania erabiltzea?

Euskal Herriko gazteek, komunikabideen eraginez bereziki, rapa erdaraz jasotzen dute (ingeles, frantses eta gaztelaraz, gehien bat) eta ondorioz, hizkuntza horiekin erlazionatzen dute. Rapa musikaren bidezko komunikazio tresna da eta komunikazio tresna guztiak bezala edozein hizkuntzatan garatu daiteke. Rapa euskaraz egitea ez da beste hizkuntzatan egitea baino zailagoa edo errazagoa. Euskara beste edozein hizkuntza bezain erakargarria izan daiteke rapa egiteko garaian; beste gauzen artean, musikarien trebeziaren, entzuleen gustuen eta ohituren arabera izango da hori (baita belarrien "ohituren" arabera ere).

3. Saiakera desberdinak ikusi ditugu, Bertso-hopa adibidez, edo MAK eta Selektah bezalako taldeak, euskaraz, rap ona eta adierazkorra egin daitekeela. Nola bultzatu daiteke hip-hop munduan bizi den jendea euskara erabiltzera?

Modu naturalean izan behar du. Euskaraz hitz egin eta pentsatzera ohituta dagoenak euskaraz abestuko du eta eroso sentituko da horrela. Euskara menperatu ez baina euskararen alde egin nahi duenak ere saiakerak egingo ditu euskaraz abesteko.

4. Eta euskal rapa kontsumitzeko aukerarik dago? Erraztasuna al dute kontsumitu nahi duten horiek rapa aurkitzeko?

Zorionez, geroz eta rap gehiago egiten eta abesten da euskaraz. Gaur egun, rapa euskaraz entzun nahi duenak inoiz baino aukera gehiago ditu (zuzenekoak, internet, diskoak eta abar).

5. Euskara artifiziala al da raparen bidez transmititu nahi dena adierazteko garaian?

Galdera xelebrea gero. Ez, noski. Hizkuntzek ez dute mezu bat artifizial egiten, mezua bera izan daiteke artifiziala edo agian euskara ezagutu edo errespetatzen ez duenaren pertzepzioa izan daiteke. Beste batzuetan, hizkuntza horretan musika entzuteko ohitura falta izan daiteke sentazio hori (batzuegan) sortzen duena. 80. hamarkada amaieran rapa gaztelaraz edo frantsesentzutea arraroa zen (eta artifiziala) batzuentzat. Gaur egun gutxi esango dute hori.

6. Zeren beharra ikusten duzu gazte batzuek sentitzen duten artifizialtasun hau deuseztatzeko?

Ezagutza, errespetua eta denbora (belarria ohitzea).

7. Nolako gaiak transmititu nahi izaten dituzte euskal raperoek?

Kantuen letretan entzungo ditugun gaiak anitzak dira. Euskal Herrian bizi direnez inguruan bizi duten egoeraren berri ematen dute, normalean. Hori bai, zorionez, gehienetan, gai horiek sakonean tratatzen dira eta ez azalekoan.

8. Gaur egun munduan gailentzen den rap irudi horretatik aldenduta sumatu ditzakegu euskal raperoak. Ezta?

Zorionez, munduan zehar era askotako rap musika egiten da eta mezuak ere anitzak dira. Egia da, musikaren industria zuzentzen dutenek, euren ideologiak eta interes ekonomikoek bultzatuta, irudi mugatua eskaintzen dutela. Kurioso bada ere, egiten den raparen parte txikia da hau nahiz eta komunikabide enpresa handien eraginez, alderantzikoa iruditu. Euskal Herrian zorionez euskaraz ari diren rap abeslariak konpromiso garbia dute gizartearekiko eta ikuspuntu ezkertiar batetik ari dira gauzak aldatu eta hobetu nahian.

9. Nolatan etorri zitzaizuen Bertso-Hopa egiteko ideia? Nolako arrera izan du gazteen artean? Bertsolariek nola erantzun dute? Eta Raperoek?

Ez zen bat bateko “fletxazoa” izan. Antzekotasun handiak daude bertso eta raparen artean eta biak ezagutu, errespetatu eta maitatzen ditugunez, harremanetan jarri genituen, besterik gabe. Hasieran zaila zirudien bertatik zerbait serioa sortzea baina badirudi harremana sendotzen ari dela. Askatasunean, independentzian eta elkar errespetuan oinarritutako harremana lantzen saiatzen gara eta, gehiegi baldintzatu gabe, bere bidea egin dezala nahi dugu. Orain arteko harrera oso ona izan da adin desberdineko entzuleen artean. Abeslariarentzako zaila da eta nahiko esfortzu suposatzen die baina gustura ari dira.

## 5. BIBLIOGRAFIA

Bereziartua, G. (2009). *Euskal Errima Erradikalaren ordua da*. Argia astekaria. <http://www.argia.com/argia-astekaria/2188/rapa-euskaraz/oso>

Ixah web-orria. *Aritz Sound System*. <http://www.ixah.net/aritzsoundsystem.htm>

Sagardia, X. (2001). *Baliteke hip-hop eta bertsoen artean hibridoa sortzea*. Argia astekaria. <http://argia.com/argia-astekaria/1796/baliteke-hip-hop-eta-bertsoen-arte-hibridoa-sortzea/oso>

Eskizabel, J. *Selektah kolektiboa >biografia*. Badok.info. [http://www.badok.info/artista.php?id\\_artista=81&markatu=hip%20hop](http://www.badok.info/artista.php?id_artista=81&markatu=hip%20hop)

Wikipedia. *Euskarazko rap musika taldeak*. <http://eu.wikipedia.org/wiki/Azala>

Maite ezazu musika, gorroto itzazu faxismoa eta arrazakeria. (2009) [Euskal rapa: Ikasi, esperimentatu eta hanka sartzeko beharra duen nerabea](http://www.racez.blogspot.com/2009/12/euskal-rapa-ikasi-esperimentatu-eta.html). <http://www.racez.blogspot.com/2009/12/euskal-rapa-ikasi-esperimentatu-eta.html>

Zamalloa, B. (2009). *Lotura zutelakoa*. Berria egunkaria. [http://www.paperekoa.berria.info/plaza/2009-07-01/042/002/lotura\\_zutelakoan.htm](http://www.paperekoa.berria.info/plaza/2009-07-01/042/002/lotura_zutelakoan.htm)

Negu gorriak. *Bertso hop*. <http://www.negugorriak.net/archivos/letras/negu/bersth.htm>